

BERTSOLARITZA FEMINISMOTIK (BIR)PENTSATZEN

Miren Artetxe Sarasola, Ane Labaka Mayoz (koord.)
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), 348 or.
Bilbo, 2019

Laino eta lanbroen erraiak

Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen liburuak 2018ko ekaineko UEU¹ren udako egitarauaren barruan Iruñeko Katakarak liburu-dendan garatutako «Bertsolaritza genero-ikuspegitik» izeneko ikastaroan izan zuen iturburuetariko bat. Ez bakarra, noski, liburuak idazle, ikerlari zein artista bakoitzak bere barnean dituen eguneroko gogoetak biltzen baititu. Haien bizipenak, historiaren barreneko ikerlanak, datu-bilketa zientifikoak zein harreman-sareetatik mamitutako pentsamenduak jasotzen ditu, bata bestearen gehigarri eta zabalgarri, mintzo desberdinak bide direlarik, ikuspuntu ugariz pentsamendua hornituz. *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen* errealitate baten ikerlan polifonikoa dugu, non ahots desberdinez osatutako ikerketak aurkitu ahal ditugun. Miren Artetxe Sarasola eta Ane Labaka Mayoz koordinazio-lanetan daude eta liburuaren irakurketa kronologikoari jarraiturik, Carmen Larrañaga Odriozola, Elixabete Perez Gaztelu, Nerea Ibarzabal Salegi, Maialen Lujanbio Zugasti, Harkaitz Zubiri Esnaola, Jone M. Hernández García, Oihana Iguaran Barandiaran, Maite Berriozabal Berrizbeitia, Ane Labaka Mayoz, Uxue Alberdi Estibaritz, Miren Artetxe Sarasola, Maider Arregi Markuleta, Maite Martinez Etxebarria, Izar Algueró Txibite, Maria Luz Esteban Galarza eta Iratxe Retolaza Gutierrez ditugu idazle.

1968ko maiatzaren 28an *Daily Express*-ek, Londreseko egunkariak, ikasle-okupazio baten argazkia zekarren. Argazkian burdin sarez osatutako ate baten atzean, pankarta baten azpian, zortzi emakume ikus daitezke eta pankartak honela aldarrikatzen du: *Student Control of College*, ateak ixten dira eta emakumeak lotan gelditzen dira. Artikuluaren izenburuak, ordea, *gates close as students start big sleep-in* zioen. Emakume horiek Hornsey College of Art-eko ikasleak ziren eta sei hilabetez unibertsitatea beren etxe bihurtu zuten, arte-praktikaren eta teoriaren arteko erlazioaren banaketa behin betikoz gainditzeko helburuarekin. Ondorioa garaiko Europako zentro errebolta handiena izan zen, unibertsitatea hartu zuten ikasketa-komunitate bihurtzeko.

1. UEU: Udako Euskal Unibertsitatea.



1. irudia. *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen* argitalpenaren azala.

Ez da harritzekoa, beraz, «Bertsolaritza genero-ikuspegitik» ikastaroko bilera horretan sortutako indar hori liburuaren oinarri garrantzitsuetako bat izatea. Biltzeak presentzia bat dakarrelako, agertzearekin zerikusi handia duelako. Gure gorputz ahostunak eta gure ahots gorpuztuak dira gure jarrera, interes, galdera zein hipotesiak plazaratuko dituztenak. Hauek bateratzea [plazaratu: plazan agerrarazi -plaz/a(r-d)itu-a], (ber)entzun-(ber)esan-(bir)pentsatu eta elkarbanatzea (kontrajarriz, gehituz, zabalduz, aldentuz...) izango dira feminismoaren espazio-sorkuntzarako gakoetariko batzuk, espazioa pentsatzeko eta pentsarazteko eta (bir)pentsatzeko, jakintza sortzeko, alegia.

Itziar Okariz artistak horrela adierazi zuen: «El feminismo es un lugar desde el que una entiende el mundo o trata de dar sentido a las cosas, es un espacio de conocimiento»². María Mur Dean-ek, *consonni* arte garaikideko ekoizpen-etxeko kideetariko batek, honelaxe azpimarratzen du: «Norberaren gunearen (publikoa eta pribatua) errebindikazioa, izan ere emakumeek lan egin, gogoeta egin, analizatu, sortzeko... behar dugu, baita ere sortutako guztia komunikatu eta ikusgai egiteko. Cortes kalean Conde Mirasolekin izkina eginez, Bilbo Zaharreko auzategi berezian, 2011tik lan egin eta esperimentatzeko gune bat dugu»³. Lekua aukera da, Virginia Woolf-ek argi azaldu zuen bere *A Room of One's Own*⁴ liburuan *logelaren*, norberaren lekua, eta diruaren arteko sinbiosia zein garrantzitsua den; idazteko aukera harekin dakarrena, pentsatzeko eskubidezko lurralde berezkoa, alegia. Hala ere, lekuak eskura egin daitezke, Hornsey College of Art-eko emakumeek unibertsitatea hartu zuten bezala edo Alicia Fingerhut-en *performance*-an legez:

2. Okariz, I. (2013): «Insist On Certain Things», in M. Zilbeti, S. Olmo, M. Mur Dean, I. Okariz, Erreakzioa-Reacción, A. Güemes Moreno & E. Gómez Genua, C. Elorza Ibáñez De Gauna, M. PTQK, Bulegoa Z/B, M.J: Belbel, *Arte ekoizpen feministak: ezagutza prozesuak, bisualitateak eta ibilbideak / Producciones de arte feminista: procesos de conocimiento, visualidades y recorridos*, consonni, Bilbo, 127.

3. Mur Dean, M. (2013): «Feminismoak consonni zeharkatuz», *Ibidem*, 26.

4. Virginia Woolf-en *A Room of One's Own* liburua *consonni* arte garaikideko ekoizpen-etxeak euskarara itzuli zuen *Gela bat norberarena* izenburuaz.

Era en una calle con coches, yo me tumbé con las piernas extendidas, junto a una plaza aquí en Barcelona, la plaza de San Gregorio, en la que había una rotonda. [...] No lo recuerdo, pero supongo que el tráfico se paró. Sí, tuvo que parar, porque si no me hubieran atropellado. Yo estaba así, con una camisa y tirada en medio de la calle. Era bonita esta acción, se veían los coches en las fotografías. Eran acciones que muchas veces no tenían detrás una gran explicación. Eran ideas que de pronto tenías y lo hacías, pero no tenían un discurso importante detrás...⁵

Alicia Fingerhut-en hitzak dira horiek. Bere ekintza horretan espazio publikoaren jabetze bat planteatzen du, kalean etzan eta minutu batzuetan kotxe-zirkulazioa eten egin zuen, Bartzelonako San Gregorio plazaren alboan 1973an, Francisco Franco diktadore faxistaren agintaldian. Gorputz-akzio horren interesak presentzian du muina: agerraraztea, agerraldia da ekintzaren gakoa. Ez edozein agerraldi, jakina, erresistentzia handi batek gorputzaren etzana biltzen baitzuen, non bat-bateko gorpuzkerak egunerokotasuna pitzatzen zuen, ohikoa zena geldiarazita, diktaduraren engranaje faxista trabatuz. Fingerhut-en bat-bateko *performance* horrek argi adierazten du nola gorputzaren indarrak espazioa, testuingurua eta harremanak asalda ditzakeen. Berak gorputza erdiratuz, kalea trabatuz eta, horren ondorioz, espazio publikoa aztoratzen duenean, hitzaren eskubidea eta autorrepresentazioa hartzen ditu. Alicia Fingerhut-ek beti mantendu du bere gorputzaren agerrarazte horrek espazio eraldatu arren, bere ekintza performatikoen atzean ez dagoela inongo diskurtso garrantzitsurik. Hala ere, gorputzek *hitz egiten* dute, errepide erdian geldirik badira ere. Gelditzea modutzat harturik eta gogoeta ekintza izanik, gorputzen presentzia indartu egiten da, gogoeta ahotara ekarraziz, birpentsatuz, aho hagindunak itsutuz edota ikusezina agerraraziz, besteak beste.

Las Madres de la Plaza de Mayo, Argentinako diktaduraren erdian beren seme-alaben desagertzea salatzen zutenek jakin badakite gorputzaren eta plazaratzearen artekoari buruz, ikusezin agerrarazteari buruz, hain zuzen ere. Eraildakoen presentzia gogora ekarri zuten ostegunero plaza gorpuztuz, Argentinak eta munduak desagerraraziak ikus zituzten. Beren ahotsen eta gorputzaren okupazioaz desagerraraziak agerrarazi zituzten, diktaduraren zapalkuntza krudelaren erdian; behartutako plaza hustuen garaietan. Paul Ricoeur-ek, *gorputz-memoria* eta *lekuen memoria* kontzeptuak finkatu zituen filosofoak, jakin bazekien *gorputz-memoria* eta *lekuen memoria* pertsona baten ekintzen bitartez loturik zeudela. Pertsonak, bertan gertatutakoak eta oroitutako egoerak lekuekin lotura estua dute. Ana María de la O Castellanos doktoreak gaineratzen du: «Los lugares de la memoria funcionan como indicios de la rememoración, y ofrecen también un apoyo a la memoria contra el olvido [...]. El vínculo entre el recuerdo y el lugar plantea un punto de unión entre la memoria y la historia: la datación y la localización muestran, a decir de Ricoeur, el vínculo inseparable entre la problemática del tiempo y del espacio»⁶.

5. Garbayo Maeztu, M. (2017): *Cuerpos que aparecen performance y feminismos en el tardofranquismo*, consonni, Bilbo, 35-36.

6. Castellanos, A.M de la O. (2008): «El espacio y sus representaciones en la memoria de los migrantes mexicanos en Carolina del Norte», *Voces Recobradas, Revista de Historia Oral*, 25 (uztaila), 22.

Bizitza datoren eta lekuaren arteko erlazioa da eta gure gorputzak presente egiten gaitu. Ezagutza beti kokatua da. Ezagutza praktikatik dator, ezagutza lortzeko borrokatu behar da, gudu-zelai bihurtzen gara eta bihurtzen gaituzte. Borrokatzeko ikasi behar da, borroka ikaskuntza da eta ikastea des-ikastearekin eta berrikusketarekin lotuta dago. Gloria Anzaldúa, «Hablar en lenguas. Una carta a escritoras tercermundistas» testuko hitz hauek gogora ekarri nahi ditut:

Muchas tienen una facilidad con las palabras. Se dan la etiqueta de profetas pero no ven. Muchas tienen el talento de hablar pero no dicen nada. No las escuches. Muchas de las que tienen palabras y lengua no tienen oído, no pueden escuchar y no oirán. No hay necesidad de que las palabras se encuentren en la mente. Germinan en la boca abierta de una niña descalza entre las multitudes inquietas. Se secan en las torres de marfil y en las aulas de las universidades. Tira lo abstracto y el aprendizaje académico, las reglas, el mapa y el compás. Tantea sin tapaojos. Para tocar más gente, las realidades personales y lo social se tienen que evocar, no a través de la retórica sino a través de la sangre y el pus y el sudor⁷.

Mundua adierazteko hitzak erabiltzen ditugun arren, hitzok inoiz ez dira munduko gauzetara helduko; gorputzek, ordea, hitzek ez daukatena eskaintzen diote munduari, heldulekua, bizilekua. *Arte ekoizpen feministak: ezagutza prozesuak, bisualitateak eta ibilbideak* liburuan Saioa Olmo artistak hauxe dio:

Las reivindicaciones feministas se integran en mi creación artística mediante distintos procesos: POR TRANSPIRACIÓN. Pasan a través de la membrana corporal, no son algo ajeno. POR SUDORACIÓN. Con cierto esfuerzo, el contexto es a la vez propenso y adverso. POR ROCE. El contacto con otras pieles es fundamental. CON HIDRATACIÓN. Dándote crema feminista nutritiva cada cierto tiempo⁸.

Argi ikusten dugu nola artista askok beren aldarrikapen-ikasketak eta deskasketak hitzen metaforen bitartez gorputzen dituzten.

Des-ikasketa, entzuteko eta espresiorako, forma desberdinen irekiera praktikoa (bilguneen/bileren/elkartzeen bitartez) eta estrategiak etengabe birpentsatzea ezinbestekoa da. Maria Luz Esteban Galarzak liburuan ideia hau aditzera ematen du: «Feminismoak argi dauka, ahalduntzeak dimentsio kolektiboa hartzen du beregain, ez da inoiz bakarka jorratzen den prozesua, baina hori ez dago beti presente gizartean»⁹. Hauxe eskaintzen digu *Bertsolaritza feminismitik (bir) pentsatzen* liburuak: elkarketa, ahalduntze kolektiboa. Bertsolaritza beste hainbat praktika artistikoren antzera gizartean sortzen den praktika soziala eta kulturala da, ez dago gizartetik kanpo. Gizartean dauden autoritatea(k), umorea(k)... islatuko dira bertsolaritzan, argiak prisma zeharkatzen duen antzera. «Ahots autorizatuaz eta haren eraikuntzaz pentsatzea ezinbestekoa iruditzen zait bertsolaritzaz

7. Fernández Polanco, A. (2019): *Crítica visual del saber solitario*, conssoni, Bilbo, 236.

8. Olmo, S. (2013). «Teorías, militancias, feminismos, academias y creaciones artísticas... plurales, juntas y revueltas un escrito desde lo vital, biográfico, práctico y reflexivo», *Arte ekoizpen feministak: ezagutza prozesuak, bisualitateak eta ibilbideak... Ibidem*, 116.

9. Esteban Galarza, M.L. (2019): «Begirada bat bertsolaritzari feminismitik», in M. Artetxe Sarasola eta A. Labaka Mayo, *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 305.

pentsatzerakoan»¹⁰ dio Uxue Alberdik. Berebizikoa dugu, beraz, alternatiba berrien bitartez ikuspegi askatzaileak esperimentatzea. Autoritateak beti dakar berekin jabetzaren ideia: nori ahotsa eman, nori kendu, nori hitza eman, nori debekatu, nor kartzelatu, nor ez... Ez da berdintasun falta kapitalizatutako gizarte honen erronka, baizik eta jabetza eta autoritatearena. Horien harira, Rita Segatoren hitz batzuk datozkit gogora:

Es insuficiente hablar hoy de desigualdad, ya es una desigualdad de tal magnitud, el pequeño grupo de ricos tiene una riqueza tan grande que en realidad son dueños de la vida y de la muerte, entonces creo que estamos en otra fase histórica, en otra fase del capital donde esa dueñidad se expresa en lo que le pasa al cuerpo de las mujeres y de todos aquellos que son disidentes, divergentes, desobedientes con relación al mandato de dueñidad, que es el mandato patriarcal, la dueñidad es la forma extrema del patriarcado¹¹.

Gorputzek ahotsa duten heinean ahotsak dira, liburuen gorputz-adar eta hotsen hitzak gorputz bakar batean: liburua. Nahiz eta hotsa beti materiagabetzat jo duten, ahotsak fisikoak dira, gorpuztuak, materiadunak. Ahotsaren fisikotasunak gorputzetan tupust egiten du. Jaume Ferrete Vazquez artistak gogoratzen digunez, ahotsak mugitzen diren haragiak dira zeinuen antzera, baina ez dira horrela onartu. «Entiendo el cuerpo como una metáfora. La voz, que siempre se ha considerado como inmaterial, es en realidad cuerpo, materia, te golpea la oreja, es física. Pero se ha relacionado con el alma, con el logos, uniendo voz a pensamiento [...]. Pero la voz es carne en movimiento»¹². Gorputzek hitz egiten duten heinean entzuten dute, «entregar la oreja», «poner el cuerpo» dio Ferretek, hau da, beste pertsonak gure gorputzetik igarotzea. Horrek entzutearekin zerikusia duela dio, bestearengandik afektatua izatearen oinarri dela, Brandon Lanbelle-ren hitzetan oinarriturik. Eta hauxe gehitzen du: «Es curioso que la mayoría de sordos no son mudos, pero se les llama sordomudos, se les quiere sin voz»¹³. Gaztekeraz 'dar voz' esan ohi da, baina interesgarria da nola ahotsa dugun, ondorioz, inork ez digula ahotsa kendu eta ahotsa eman behar. Ahots askotako hizkuntzak ditugu, hala ere, zeinu-hizkuntzari pasatzen zaion modura, ahots, hizkuntza edo gorputz denek ez dute autoritate berdina. Miren Artetxe Sarasolak liburuan ondo argitzen du borroka horren izaera: «Emakumeen ahotsa eta gorputza oraindik gudu-zelai direla esan liteke, emakume bertsolariak ez hegemonikoak ez izatearen arrazoi nagusietako bat haien gorputza bera izanik, eta ahotsa ere gorputz gisara ulertuz»¹⁴.

Besteen ahotsak itsas korrontearen moduan zurrupa egiten gaitu, behintzat entzuteko prest gaudenean. Ahots askok indar zentripetu baten ostean itsas barnean sartzen gaituzte. Handik itsas erraiak ikus ditzakegu, eta hortik, berriz ere, beste puntu

10. Alberdi Estibaritz, U. (2019): «Bertsoraino (kontrako eztarritik lanaren alderdi teorikoa)», *Ibidem*, 247.

11. Segato, R. (2017): *Cuerpo, territorios y soberanía: violencia contra las mujeres*. Esteka: <<https://www.youtube.com/watch?v=Nvss3YPEUv4>>, [2017-06-14an Canal UCRek igota, 7:17 minututik 8:02ra].

12. Villaverde, T. (2016): «Las ideologías de la voz», *Pikara aldizkaria*. Esteka: <<https://www.pikaramagazine.com/2016/07/las-ideologias-de-la-voz/>> [2016-07-28].

13. *Ibidem*.

14. Artetxe Sarasola, M. (2019): «Emakume Bertsolari garaikideak. Ahalduntze-prozesu baten kontaketa posible bat», *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*, *Ibidem*, 259.

batera irten, askotan itolarrian bada ere. Ahotsetan gorputz-keinuak aurki daitezke, gorputz-keinetan ahotsak diren bezala. Liburuan Jone M. Hernández García-k Roland Barthes-en hitz hauek aipatzen ditu: «Ahotsa, gorputzetik datorren fluidoa litzateke, horregatik, sarritan posible da zenbait ahotsetan gorputza(k) ikustea»¹⁵. Eta ur asko biltzen denean itsaso-gorputz bihurtzen gara. «Ya habíamos empezado a trabajar en grupo, ya éramos un grupo, para que nos vieran, sino sos invisible»¹⁶ adierazi zuen Hebe de Bonafini-k, *Madres de Plaza de Mayo* elkarteko kideetako batek. Argentinako diktadura faxistaren kontrako mugimendu horrek xakean jarri zuen faxismoaren estruktura errepresiboa, beren seme-alaben fardel zuriak jantzirik zituztelarik. Haien elkartzea, gorputza gorputzekin, heldurik, horixe izan zen aldarria aho batez: bat espetxeratzekotan guztiak espetxera, bati dokumentatzeko eskatu eta guztiak dokumentua eskuan¹⁷. Gorputz indibidualak zein gorputz-bilerek beste gorputzetan izan dezakete ondorioa, beste ahoetan jarria.

Bilera batek, elkarte batek, gorputzu ditzake errealitate konplexu baten adarrak, eta entzule batek bere gorputzean adar-aldaxkak balira bezala txerta ditzake besteen ahotsak; irakurle garen heinean, entzule ere garelako. Bertsolaritzaz hitz egitea gizarteari buruz hitz egitea da; bertsolaritza gizartearen ezaugarriez zeharkaturik dago, ez da modu isolatuan sortzen, «gure gizartea goitik behera zeharkatzen duen genero-sistemak zeharkatzen du bertsolaritza ere»¹⁸, dio Miren Artetxe Sarasolak.

Bizitzatik eraikitzen dena bizitzatik hausnartu eta bizipenetatik hornitutako estrategietatik eraldatu ahal dugu, galerak galera eta ondorioak ondorio direlarik. Jarrera dugu bizitzarekiko hausnarketaren ondorioaren praktika, jarreraren bitartez sistema patriarkalaren orkatilak bihurtu ahal ditugu. Saioa Olmo artistaren hitz hauek jarreraren gaineko hausnarketak eskaintzen dizkigute:

Entiendo el feminismo como una actitud vital. Algo que se ha ido autoconstruyendo en mí como acción/reacción/relación con el entorno en el que vivo. Del mismo modo, la creación artística es una manera de conectarme con el contexto, para llegar a entenderlo, para llegar a entenderme en relación a él, para no enfermar en una sociedad normalizadamente loca. Es conversar o discutir con la realidad mediante herramientas diferentes a las del pensamiento lógico, la ética imperante o el conocimiento objetivista¹⁹.

Liburua irakurri ostean hainbat ideia, apunte eta gogoeta sortu zaizkit. Azal beltzeko koaderno batean gorputzu ditut, hitz bakoitzak eguna orrazten baitu, idazteko traza desberdinen arteko dantzan. Erreseina honetan besteen gorputzetatik, besteen ahotsetatik hitz eginez, nire ideien loturak plazaratu nahi izan ditut, beste ahotsetan

15. Hernández García, J.M. (2019). «Gorputz bat ikusten dut zure ahotsean. Gorputz generatuak bertsolaritzaren soinu-bidean», *Ibidem*, 141.

16. *Madres de Plaza de Mayo La historia - Capítulo 2: Las locas de la plaza (1977)*. Esteka: <<https://www.youtube.com/watch?v=iB7SCObGtRI>> [2015-03-25ean Televisión Pública-tik igota, 5:18 minututik 5:31ra].

17. *Madres de Plaza de Mayo La historia - Capítulo 2: Las locas de la plaza (1977)*. Esteka: <<https://www.youtube.com/watch?v=iB7SCObGtRI>> [2015-03-25ean Televisión Pública-tik igota, 0:57 minututik 2:12ra].

18. Artetxe Sarasola, M. (2019): «Emakume Bertsolari garaikideak...», *Ibidem*, 257.

19. Olmo, S. (2013): «Teorías, militancias, feminismos, academias y creaciones artísticas...», *Ibidem*, 111.

gu, beste ahotsetatik nire esana, ez da erreseina akademiko bat, liburua irakurri ostean niregan sortu denaren plaza baizik. Nire aburuz, aipamena ez da liburuaren deskribapen zehatz baten triskantza, baizik eta liburuak mugiarazi eta hausnarrarazi dizunaren lagin ttipi bat, akaso. Hitzak gureganatzen ditugu, distantzia erlazio bat da, hurbiltasunarena: besteon hitzok parteka ditzakegu. Sarritan besteengan gaudelako eta besteak guregan, ondorioz, ahots partekatu bat darabilgu.

Liburuak honako hau argitu dit: gorputzaren eta ahotsaren erabilera normatiboak aldatzeak presentzia-bide berriak topa ditzake gure gizartearen baitan.

Iraganaren oihartzunak noraino ozenduko diren ez dago jakiterik, giza taldeak iraganaren zati aukeratuak behin eta berriro berpizteko gai dira eta, orainaren deiari entzunda. Ez dugu ahaztu behar iraganak orain aldiaren eragina duenik. Era berean, orain aldiak iragana aldatzeko duen gaitasuna nabaria da. Izan ere, oraina iraganez josita dago eta, neurri handi batean, iragan ekarri berria orainak sortzen du. Biok bizidunen antzera elkarri ematen diote arnasa²⁰.

Gure iragana entzun behar dugu gaur eguneko egoerak eraldatzeko, besteen gorputzetatik igaro behar ahotsak aditzeko. Esperientzia batek denbora inplikatzeko du, leku baten ezagutzeak egonaldia dakar harekin, fisikoa, adimenarena eta sozioafektiboa.

Gaur egun, segregazio-mekanismoak askoz sotilagoak dira, detektatzeko zailagoak, hain zuzen. Maialen Lujanbiok liburuan aipatzen duenez «laino lanbro egitea ordea ez da desagertzea, ikusezinago eta ulergaitzago, lausoago egitea baizik»²¹. (Bir)pentsatzea ekintza da eta ekintza gogoeta, eta *Bertsolaritza feministik (bir)pentsatzen* liburua *ekintza-bilera* dugu; ikasteko eta des-ikasteko lekua.

*Beñat Romera del Cerro (Beñat Krolem)*²²

20. Romera Nielfa, J.C. Erreseinaren egileak historialariari egindako elkarrizketaren pasartea 2020ko abuztuaren 5ean.

21. Lujanbio Zugasti, M. (2019): «Arbola hazten, azala zartatzen. Azken 40 urteak bertsolaritzan: bertso-eskolaren sorrera eta emakumeen sarrera», *Bertsolaritza feministik (bir)pentsatzen*, *Ibidem*, 97.

22. *Akmeka* Ikerketa Taldeko partaidea (IT1278-19).

